


# ximple!



## 2018 URTEKO KONTUEN ETA AURREKONTUEN INGURUKO ASANBLADA

**KONTUAK ARGI ETA GARBI.** Iragan otsailaren 16an, azken urteetan egin izan ohi den moduan, Agoizko Udalak udalerriko bilagunei 2018. urteko kontuak eta aurrekontuak aurkeztu zizkien Kultura Etxean.

Berrogei pertsona inguru elkartu ziren lan-saioan eta Unai Lako alkateak eta Carmen Cosin Ogasun zinegotziak bideratu zuten bilera. Bilkura laurogeita hamar minutukoa izan zen. Aurrekontuetako kontzeptu eta kontu guztiak azaldu zituzten bilera aretoan proiektio dinamiko baten bidez. Bertaratu ziren udaleko gainontzeko ordezkariak beste sailetan 2017 urtean burututako jarduerak guztiak azaldu zituzten ere bai.

Amaitzeko, Unai Lako alkateak 2018 urterako Agoizko Udalak prest dituen erronkak eta ideiak azaldu zituen laburki.

Horren bidez, udal kudeaketa zuzenean ezagutu genuen. Gainera, azalpen osoa biltzen duen eta bileran landu egin zen dokumentu grafikoa webgunean eskuragarri dago, irakurgai eta inprimatzeko. Gardentasuna eta kontuak argi eta garbi.

**2017 URTEKO LABURPENA.** Joan den urtean Agoizko Udaleko jarduerak bizia izan zen. Udal arautegi hauek berritu ziren: ura, datu pertsonalen babeserako arautegia, Kultur Etxearen erabilera arautegia, hiriko eta landako hondakin kudeaketarako Udal Arautegia; Balorazio Ponentzia ere berritu egin zen.

Alor publikoko langileen soldata %1 igo zen; errepide garbiketarako egiteko arduradunaren lanaldia handitu egin zen; eta zortzi pertsona kontratatu ziren Udal Zerbitzu Anitzak indartzeko. Cederna Garalur-ekin elkarlanean langabeentzako eta ekintzaileentzako sei ikastaro egin ziren dohainik.

Gizarte Zerbitzuetako Saitetik bideratutako lanen artean, urtero bezala, martxoaren 8aren inguruko kanpaina egin zen, jaiak ber-



dintasunean bizitzeko kanpaina eta azaroaren 25eko salaketa ere. Parke bio-osasungarria inauguratu zen, kalean gimnasia egiteko aparatua dituen. Sarean-ekin elkar lanerako hitzarmena egin zen; baita DYArekin ere, Udal langileak eta hiritar oro Oinarrizko Bizi-Euskarriak eta desfibriladore semi-automatikoa erabiltzen ikasteko.

Urtearen amaieran, Agoizko herria errefuxiatuei harrera egiteko programa batean murgildu zen, eta bereziki pozgarria izaten ari da, gurean jadanik hiru familia eta hamazortzi pertsona bizi dira. Gurutze Gorriaren eta boluntarioki lanean ari den talde baten laguntzarekin bertako hizkuntzak ikasten ari dira era herrian gizarteratzea egiten ari dira.

"Zaindu Agoitz, zure etxea da" kanpainaren lanketaren barruan, gizalegeekiko herritar guztien konpromisoa lortu nahi izan da (zirkulazio-arauak betetzea, garbitasuna, konpostajea egiteko ontziak eta zakarrontziak ongi erabiltzea, txakurren gorozkiak biltzea...). Hirigintza-arloan hobekuntza nabariak egin dira: eskola inguruan, Kanpondoan eta zahar-etxean. Auzo berrien seinaleztapenak ere egin dira.

Udaletxeak komunikazioaren arloan aurrerapauso garrantzitsua eman du pertsona bat kontratatu baitu webgunea, Facebook eta Udal app berriaren martxa ona ziurtatzeko; gainera aldizkari bat on-line sortu da, bertan, Agoizko Udalaren hileroko jarduerak laburbildurik azaltzen dira; eta webgunean eztabaida-gune bat dago eta bertatik, 2017 urtean bilagunekin hamalau bilera publiko egin dira gai ezberdinen inguruan.

Franco ez da jadanik Agoizko seme kutuna; memoriaren parkea inauguratu da; eta martxan daude hiriko xendra, Irati ibaiaren xendra, autokarabentzako aparkalekua eta zuhaitz berezien proiektua.

Juan Antxieta egindako erretaulak ezagutzera emateko saiakerak eta Irati S.A-ren inguruko erakusketak bereziki gogobetegarriak izan dira.

Kudeaketa berritu da 0-3 urteko eskolan; Haritu taldea jaiotako herriko eragileen artean hezkuntza gaien inguruko formazioa sustatzeko; Udal Txikiaren protagonismoa handitu da ikasturte osorako programa bati esker eta Udabatza Txiki bat ere egin zen, bere ondorio guztiekin.



### Agoizko Udala | Ayuntamiento de Aoiz

13. zenb. | nº 13

2018ko martxoa

### ZERBITZUAK | SERVICIOS

#### Udaletxea | Ayuntamiento

948 33 60 05

#### Euskara Zerbitzua | Servicio de Euskera

948 33 65 65

#### Kultur Etxea | Casa de Cultura

948 33 66 90

#### Cederna Garalur

948 33 63 37

#### Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Servicio Social de Base

948 33 40 95

#### Liburutegia | Biblioteca

948 33 64 53

#### San Migel Ikastetxea eta Institutua |

#### Colegio e Instituto San Miguel

948 33 63 09

#### Bisitaldi gidatua Elizara | Visitas guiadas a Iglesia

637 44 81 07

#### Dya

948 33 60 65

#### Suhiltzaile Boluntarioak | Bomberos Voluntarios

948 33 65 00

#### Udal Pilotalekua | Frontón Municipal

948 33 61 64

#### Kirol Gunea | Complejo Deportivo

948 33 67 06

### AURKIBIDEA

3	2018 URTEKO KONTUEN ETA AURREKONTUEN INGURUKO ASANBLADA
6	BALORAZIO PONENTZIA BERRITU DA
7	2018 URTEKO PREZIO PUBLIKOEN ALDAKETAK ONETSITA NAFARROAKO TOKI OGASUNEN BANAKETA BERRIA
8	AURKEZTURIK NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA BERRANTOLATZEKO AURREPROIEKTUA BOZERAMAILEEN MAHAIA ETA BATZORDEA, AGOITZEN
9	CEDERNA GARALUR, 2017KO BALANTZEA FORMAKUNTZA IKASTAROA BANDOA BOTATZEA DUGU BERRIRO, ETA TELEFONO BIDEZKO ARRETA ZERBITZUA ERE
10	BANDA ZABALA AGOITZERA AILEGATU DA INTERFERENTZIAK TB-REKIN? WWW.LLEGA800.ES AGOIZKO AUZOETAKO SEINALEZTAPENA AMAITU DA
11	PACO OYARZUNEK ORDAINDU DITU HILERRIKO HORMAREN GASTUA ETA HERRIKO BIDE BAT UDAL HILTEGIAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA ONETSI DA
12	PERTSONA ERREFUXIATUAK AGOITZERA HELDU DIRA GENERO BORTIZKERIAREN AURKAKO ZIKLOA
13	ELIKAGAIEN BANKUA OINARRIZKO BIZI-EUSKARRIEN ETA DESFIBRILATZAILAREN ERABILERA EGOKIAREN ZIURTAGIRIA BERRIZ ESKURATZEKO IKASTAROA "OSASUNEKO NORBANAKOAREN KARPETA", ESKURA
14	AURRETIAZKO BORONDATEEN DOKUMENTUA OSASUN ETXEAN TRAMITATU DAITEKE ETXEKO OSPITALERATZE ZERBITZUA ESKUALDE GEHIAGOETARA ZABALDU DA, ETA HORIEN ARTEAN AGOITZERA HIRIKO URAREN ZIKLO INTEGRALAREN PLAN ZUZENDARIA 2019-2030
15	AGOIZKO UDALAREN HERRI-LURRAK KONPOST-GUNERA IRISTEKO SARRERA BERRIA ESKOLAKO KONPOSTAJE ETA BIRZIKLATZE PROIEK
16	H+ARITU, HEZKUNTZAREN ALDEKO SAREA, SORTU DA IKASTETXEAK JARDUNALDI IRAUNKORAREN ALDE EGIN DU BI IKASTETXEETAKO JANTOKI ZERBITZUAK BATU DIRA
17	ESKOLA PUBLIKOKO AZPIEGITURETAKO HOBEKUNTZAK UDAL TXIKI BERRIA, OSATURIK
18	ERA. BELAUNALDI BERRIEN AUKERA EUSKARABIDEAK ETA 24 UDALAK, AGOIZKOAK BARNE, D EREDUAN ESKOLATZERA ANIMATU DUTE "EUSKARAZ ESKATZEA XINPLEA DA" KANPAINA
19	ENTZUTEKO EKIPOAN EROSI DIRA SARRERAK SALGAI, APP-EN BIDEZ ERE EL IRATI, S.A-REN INGURUKO ERAKUSKETA EGUESIBARREN ETA NAFARROAKO ARTXIBATEGIAN JUAN ANTXIETA, ERRETAULAK NAFARROAN
20	AGOITZ HIRIA XII. ARGAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA OMENALDIA, NAFARROAKO GASTRONOMIA ARLOKO BEDERATZI DAMARI KULTUR BALANTZEA
22	KANPONDOA, S.L. TITULARRAREN ALDAKETA, TOKI EDER PILOTALEKUKO TABERNAREN GESTIOAN JOSÉ ANTONIO VERGARARI OMENALDIA SAN SILVESTRE HOTZA ETA ANIMATUA ESTHER LEÓN ITOIZ ZENDU DA, NAFSE-36 SORTU ZUEN ANDRE

ximple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotzietatik osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.





Garrantzitsuak izan dira bi ekimen hauek: bata, era.eus webgune berria da; zerbitzu honek eskola garaian euskaraz ikasten ari diren haurren gurasoentzako baliabideak eskaintzen ditu eta Udaletxe batzuetako Euskara Zerbitzuak sustatua da. Bigarrena, "Euskaraz eskatzea ximplea da" kanpaina da, hiriko merkatalgune eta saltokietan oinarrizko gauza errazak nola eskatu ikasteko.

Kirol arloan aipagarriak dira Kanpondoak antolatutako Kostradaren Krossa; Agoizko bigarren Mendi Lasterketa arrakastatsua; eta lehenbiziko aldiz, Agoizko jaietan emakumezkoen pilota partidak ikusi ahal izana.

Lehenbiziko aldiz, hiriko bizilagunak txupinazioa norik piztuko zuen erabaki zuten bozketa baten bidez. Kultur Etxean ikuskizun garrantzitsuak egon ziren, adibidez, Demode Quartet taldearen kontzertua edo Xabier Idoateren margolariaren lanen erakusketa; eta ala eta beste behin ere, Agoizko kolektiboak herriko kulturaren motorra izan dira.

**2018ko AURREKONTUAK.** Pasa den urtean egindako azken osoko bilkuran, udalbatzak oniritzia eman zien 2018ko aurrekontuei. Aho batez onetsi ziren, PSNren zinegotzien botorik gabe, hala ere, bilkurara joan ez zirelako.

Aurtengo aurrekontua 2.352.903 eurokoa da. Baina, kopuru horretaz gain, kontuan hartu behar dira ere musika eskolako gastua (132.100 euro) eta Kanpondokoa (467.300 euro), Musika eskolako Patronatuak eta enpresa publikoaren administrazio kontseiluak, hurrenez hurren, onetsitakoak. Orotara, iazko aurrekontuak aztertu eta horiekin alderaturik handitu egin dira 121.321 eurotan (Udaletxea), 3.950 (Musika Eskola) eta 20.000 euro gutxiago bideratu dira Kanpondoarako. Aurrekontuek gora egin dute zenbait

zerbitzuen finantzazioa eta gastuak igo direlako, 0-3 urtekoentzako zentroa edo eskualdeko ikastetxea esaterako, eta Nafarroako Gobernu Toki Inbertsioen Planaren (PIL) barnean udaletxean jarriko den igogailuen obregatik. Azken inbertsio hori kontuan hartzen ez badugu, aurrekontuek aurreko urteetako lerroei jarraitzen diote, izan ere gastua ezin da asko igo, diruzaintzan oraindik likidezia falta dagoelako.

Inbertsioa 162.025 eurokoa da, eta honako lan hauek egitea aurrikusita dago: teilatua konpontzea, igogailua jartzea (behar beharrezko jarduketa da, beste urteetan ere aurrikusitakoa), herritarrei harrera egiteko bulegoak beheera pasatzea eta udaletxeko sarrera nagusia berreskuratzea. Horretaz gain, sabaian erabilera anitzeko areto bat egiten da eta bigarren solairuko leihoak konponduko dira. Inbertsio horiek guztiek Nafarroako Gobernu Toki Inbertsioen Planaren bidez (TIP) (150.000 euro) eta determinazio librez (130.000 euro).

Ikastetxe publikoko leihoak aldatzeko bigarren faseari ekinen zaio, eta 0-3 urtekoentzako ikastetxean aire hotz-beroa emateko aparatuak erosi dira.

Langileentzako lansariak %1,5 igoko dira. Modu berean, kultura arloko laguntzailearen lanaldia igoko da %50etik %60ra, Kultur Etxean dagoen aktibitate handia dela eta.

Gastuak igoko dira ere ondoko zerbitzu edo ondasun arrunten lerroetan: San Migel futbol zelaiko mantenamendua, hiriko altxariak, berdintasuna, lana eta familia bateratzea, turismoa eta finantza gastuak.

Diru-sarrerak direla eta, nabarmentzekoa da gainbalio-zergari dagokion kopurua jaitsi dela (47.000tik 7.000ra), Auzitegi Konsti-

tuzionalaren epaia dela eta. Horretaz gain, kontribuzioa handitu da, hamalau urtez eguneratu gabe zegoen katastroko balorazio ponentzia egunean jarritakoan.

Aurrekontuak onetsi ziren Osoko Bilkura berean udalbatzak beste bi gai garrantzitsu aztertu eta aho batez onetsi zituen: 2018. urteko tasak eta zergak eta Udal plantilla organikoa, Musika Eskolako Patronatuak eta Kanpondoa S.L.-koa barne.

**2018 URTERAKO ERRONKAK.** Aurtengoa funtsezko urtea izango dugu, hiru proiektu nagusi hasteko unea izango baita. Udaletxearen berritze-lanak egingo dira: teilatua konponduko da; igogailua jarriko da; Herritarrentzako Arreta Bulegoak beheko solairuan egoteko aldatzeko egingo dira; Udaletxearen sarrera nagusiaren berritze-lanak egingo dira; bigarren solairuko leihoak aldatuko dira; eta erabilera anitzetarako gela bat egiten da teilatupean.

Proiektua finantzatzeko Nafarroako Gobernuaren laguntza izango dugu Toki Inbertsioen Planaren bidez (TIP) (150.000 euro) eta determinazio librez (130.000 euro).

Bigarren proiektu handia herriko argi-sistemaren berritzea da. Guztira 1092 argi-gune eta argi-koadro zaharkitu berrituko dira, herriko argizatzearen potentzia eta intentsitatea kontrolpean izateko. Hori egiteko, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak mailegu bat emanen du konponketa-lanen balioagatik (655.000 euro), eta hamar urteetan itzuliko da, baten faltan eta interesik gabe elektrizitate fakturan aurreztutakoarekin. Herria argizatzeke energia elektrikoaren %71 gutxitzea aurreikusten da.

Gizartetxea da hirugarren ekimen garrantzitsua. Lehen Kamine-roen Etxea zena eta gero, Udalaren esku utzi zena, orain, gizarte gaietarako eraikina izatea nahi da. Eguneke zentro bat izango da eta gizarte gaiak lantzen dituzten herriko eragileentzako egoitza bat izatea espero da, eta etorkizunerako egitasmoa hirugarren solairua gizarte babeseko etxeak bilakatzea da. Egitasmoa Tokiko Garapenerako Planaren diru-laguntzen ebazpenaren zain dago, eta horren kudeaketa Cederna Garalurren esku dago.



Dena ongi baldin badao, hiru proiektuen hasiera irailan gertatuko da eta 2019 urteko lehen hiru hilabeterako bukatuak egonen dira.

Bide onetik doazen eta 2018 urtean martxan jarri daitezkeen beste egitasmo garrantzitsu batzuk hauek dira: Iratiko Bide Berdea; behin betiko proiektua onartu berri dute Madrilan eta aurrekontuen izendapena egiteko zain dago obrak esleitzeko. Bestetik, Urrotz Hiriko zabortegia betiko zigilatzeke proiektua dago, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen eta Nafarroako Gobernuaren %90 finantzazioaren bidez egitekoa. Bi lan horien aurrekontua 3,5 milioi euro ingurukoa da.

Aurten, Nafarroako Gobernuak Arbuñes eta Lecumberri enprekin hitzarmenak sinatu ditu Tokiko Agenda 21-aren garapenean laguntzeko eta horren jarraipena egiteko. Nagoreko presaren azken zatiko lanak amaitzea espero da, eta inguruko turismoaren garapenerako planaren hastapena izatea. Gainera, Itoitzeko urtegiaren zati baten irekiera gertatzea espero da bertakoek eta turistek bisitatu ahal izateko.

Zuntz bidezko sarea herrian zabaltzeko baliabideak ipini nahi dira, Nafarroako Gobernuaren Udal egoitza guztiak konektatuta daudenez gero. Agoizko historia gordeko duen museo-etxe baten proiektua ere badugu, baina oraindik ezer zehatza azaltzeko gai ez gara. Irati HHS Mankomunitateak eta Nasuinsak hitzarmena sinatu dute, mankomunitatearen egoitza lekuz aldatu, eta Solanok erabiltzen zuen eraikinean egoitza berria jartzeko. Konpostagune komunitario berri gehiago nahi dira. Nafarroa Behera plazan hobekuntza-lanak egin nahi dira. Piragua esaloma martxan jarri nahi da. Nafarroako Txirrindularitza Itzuliaren etapa bat Agoitzen hasiko da. Azkenik "Agoizko historiak" erakusketa dugu, artxibategian bilatzeko modu entretenigarria izango da, dokumentu zaharrenak aurkitzeko modua, historiaren pasarte bitxiak eta harrigarriak, eta gure iraganetik ikasteko era bat.

Ez dira makalak 2018 urterako ditugun erronkak, datorren urtean gehienak egi bihurtuak ikustea desio dugu.

## BALORAZIO PONENTZIA BERRITU DA

2017 urtean Agoizko Udalak Tracasa enpresari, Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa, Balorazio Ponentzia berritzeko eskatu zion. Dokumentu teknikoak dira ponentziak biltzen dituenak, lurraldeko Udal eremuetan eta Udalerriak gaindikiko eremuak azter daitezke, baina gure kasuan Udal lurraldean egingo da eta ondasun higiezin bakoitzaren balioa zehazteko metodo eta parametro teknikoak jasotzen dituzte. Esan bezala, lan hori burututakoan bizilagunek jabetza pribatua duten ondasun higiezinaren balioa zehaztasunez jakingo da (lur eremu bat, bajera bat, etxebizitza...), ondoren, bizilagun bakoitzak dituen ondasunen arabera ordaindu beharreko kontribuzioa zehazteko.

Legeak zehazturik, Balorazio Ponentzia bost urtean behin berritu beharra dago; gure Udalerrian, 2004 urteko Balorazio Ponentzia indarrean zegoen oraindik, 2009-2010 urteetan berritu beharra genuen eta ez zen horrela egin. Joan den legislatura aldiaren Udalaren egoera delikatuagatik eta krisi ekonomikoa zela eta, egiteko hau aurrerago egiteko zutza erabaki genuen.

Orain berrikuntza egin beharra dugu, legeak horrela esaten duelako eta Nafarroako Gobernuak Udal finantziarioan zigorrik ez jasotzeko 2018 urtean Balorazio Ponentzia gutxieneko berritzen hasi izana bete behar gisa ezarri duelako. Hasierako onetsia NAO-n agertu zen abuztuaren amaieran eta irailaren 12an, Udalak Tracasa teknikoekin batera bizilagun guztientzako bilera egin zuen dokumentazioaren zehaztasun guztiak argitzeko. Batzorde mistoak, Agoizko Udala eta Gobernuak osatzen duten batzordea, akatsa txikiren bat moldatu zuen alegazio tartean eta ondoren, jendartearen ikusgai egon zen, azaroan azken baieztapena jaso zuen arte.

Ondasun higiezinaren balioa eta Balorazio Ponentzia berritu eta gero, Udaletxeak zerga-tipoa finkatu beharra du, hau da, bizilagun bakoitzak bere jabetza duten ondasun higiezinengatik ordaindu beharko dugun zenbatekoa. Hori egiteko herria eremu ezberdinetan banatu dugu; industrialdea, alde zaharra, urbanizazioak, komunalak, etxebizitzarako eraikinak... Ondasun bakoitzaren balioa ez-

berdina da zonalde bakoitzaren arabera, bakoitzaren ezaugarrien arabera, eraiki zen urtearen arabera...

Orain arte Agoizko herrian aurreko ponentziarekin zegoen zerga-tipoa % 0,26koa zen; ponentzia berriarekin %0,21ekoa da. Balorazio Ponentzia duela hamalau urtetik gaur arte berritu ezenez, zerga-tipoa txikiagoa izan arren, ordaindu beharrekoa pixka bat gehiago izango da orain artekoa baino.

Hurrengo hiru hilabeteetan jabe bakoitzari bere ondasun higiezin bakoitzaren balio berria jakinaraziko zaio; kontribuzioaren ordainketa egin baino hiru hilabete lehenago. Kontribuzio-zerga honen erdia ekainean ordainduko da eta beste erdia abenduko hilabeteetan.

Nafarroako Gobernuak aurreikusi du arautzen duen Toki Mapa Legearen irizpideen barnean, gutxieneko kontribuzio tipoa igotzea, egungo %0,10tik %0,25era. Udal honen iritzia da 2018 urterako adostutako %021eko azpiko tasa-tipo bat ezartzea kaltegarria izango litzatekeela datoen urteetan nabarmenki handitzera derrigortuak egongo ginatekeelako.

**BERRIKUNTZA BAT:** Balorazio Ponentzia berrian hiri- eta landa-kontribuzioa ordaintzeko tasa-tipo berdina ezartzen da, bi eremuak berdin jarrit.

Lehenbiziko aldiz, Agoizko Udalaren aginduz urtegia eta kanala kontribuzio ondasun gai gisa barnebildu dira, kontribuzioa ordaindu dezaten, batari eta besteari dagokien bezala.

Bestalde, industrialde berrian, eraikinak eginda eta jarduera industrialde egiteko prest dauden lur-sailak daude, baina orain arte landa-lurra gisa kalifikaturik zeuden eta orain, egoera hori aztertu eta gero, erregistroa aldatu egin da eta industrialde guztia hiri-lur bezala gorde da eta kontribuzio zerga horren arabera ordaintzen dute industrialde osoan.

## 2018 URTEKO PREZIO PUBLIKOEN ALDAKETAK

Indarrean dauden tarifen zerrendara Udaletxeak berri hauek gehitu ditu:

- Arma txartelak eta animalia arriskutsuen txartelak egitea: 15 €.
- Interesdunen eskaeraz ondasunen salneurria zehazteko hirigintza arloko agiriak egitea: 50 €.
- Interesatuak horrela eskatuta, espedienteen hastapenak iragaritzen dituzten prentsa oharak: iragarkiarenekin zenbatekoa itzuliko da.
- Udal Artxibategietan gordetik dauden eta 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten dokumentuak bilatzea eta topatzea: 15 €.
- Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartelak egiteagatik eta tramitea egiteagatik: 10 €.
- Irekiera lizentzien titularrak aldatzeko tramiteak egin eta xedatzeagatik: 50 €.

Udalbatzak tasa hauek abenduaren 20ean onartu zituen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean indarrean egongo dira, martxoan ziurrenik.



## ONETSITA NAFARROAKO TOKI OGASUNEN BANAKETA BERRIA

Nafarroako Gobernuak lege berri bat onetsi du komunitateko udalerrietarako Toki Ogasunen Fondoa banatzeko, eta banaketa hori indarrean egon da 2018. eta 2019. urteetan zehar. Toki Ogasunen Fondoa da gobernuak udal eta kontzejuen gastu arruntak (langileak, bulegoak, hornidurak eta abar) finantzatzeko duen sistema.

Legearen helburua da 2018. urterako aurrikusitako ekarpena handitzea, Foru Komunitateko kontsumoko prezioen indizea (IPC) baino bi puntu gorago. Indize hori ekainetik ekainera baloratzen da, eta azkena %1,1koa izan da. Horretaz gain, 5,8 milioi aurrikusita daude, montepioak finantzatzeko udalen gastua gutxitzeko. Horren eraginez, udal finantziarioa, pasa-

den urtearekin aldaratuta, %5,9 igo da, hots, 12,2 milioi gehiago.

Igoera horren eta zenbateko hori banatzeko ezarritako irizpide berrien ondorioz (guztira igotako % 3,1tik, %2,1a igoera lineala da, eta gainerako %1 hainbat irizpideren arabera –horien artean biztanleria edo zabalera, esaterako- kalkulaturako formula betean oinarrituta kalkulaturakoa da) udalak 31.000 euro gehiago jasoko ditu. Agoitzek 704.000 euro jasotzen zituen eta 2018. urte honetan 735.000 euro jasoko ditu.

2019. urteari dagokionez, berriro igoko da fondoaren kopurua, 2018. urtean jasotakoari IPC + 2 puntu gehituta, hain zuzen ere.

## TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSAREN EBOLUZIOA 2008-2018

NAFARROAKO UDALETARAKOTRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA  
2018 - 2019  
FONDO DE TRANSFERENCIAS CORRIENTES PARA LOS AYUNTAMIENTOS NAVARROS



## AURKEZTURIK NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA BERRANTOLATZEKO AURREPROIEKTUA

Pasa den abenduaren 21ean Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioari Departamentuak plazaratu zuen toki mapa berrantolatzearen aurreproiektua. Agiria aurkeztu da Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak bi urteko eztatubida prozesu bat egindakoan. Prozesu horretan izandako topaketetan toki entitateek bere ikuspuntua plazaratu eta aldaratzeko aukera izan dute. Nafarroako Gobernuak adituen talde batekin lan egin du, eta gaia departamentu guztietan landu da. Orain prozesuaren azken txanpa hasi da.

Aurreproiektua Parlamentura heldu baino lehen, eztatubidatu eta onetsi dezaten, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak sakonki aztertuko du proposamena, entitateak egindako partaidetza prozesuen ondoriozko kontsiderazioek Gobernuarekin bat egiten duten ikusteko eta ondoren egiten den biltzar bereziko jarrera hartu ahal izateko.

Aurreproiektua forma hartzen joan ahala eta proposamen onegarri batera hurbildu ahala, horren berri emanen diegu herritar guztiei; izan ere, berrantolaketa horrek aldaketa handia ekarriko duelako zenbait alderditan. Horren inguruko dokumentua ikusgai dago [www.fnmcc.es](http://www.fnmcc.es) web-orrian.



## BOZERAMAILEEN MAHAIA ETA BATZORDEA, AGOITZEN

Pasa den azaroaren 27an, Foru Parlamentuko Mahaiak eta Batzordeak astelehenean egiten ohi duten bilkura Agoitzen egin zuten. Parlamentu Ibiltaria iniatibak instituzioak jendearengana hurbildu nahi ditu. Agoitzen aurretik Oibar, Erriberri eta Altsasun, esaterako, egin zen.

Udal korporazioak Ainhoa Aznárez presidentea eta parlamentuko talde guztietako ordezkariak harrera egin eta bilkura egin zuten Agoizko Udaletxeko bilkura aretoan. Ondoren, Aurelio León Aretoan, taldeetako bozeramaileek hedabideen aurrean agertu ziren.

Bukatzeko, parlamentuko presidentek eta Agoizko alkateak opariak elkarri eman eta hitz batzuk esan zituzten. Unai Lakok positiboki baloratu zuen herria Parlamentuko bilera bat egiteko aukeratu lekua izana, topaketa hori laburra izan bazen ere, bozeramaileen mahai eta batzordeari herriko kezka helarazteko aukera izan baitzuen.

Udaletxeko bilkura aretoan aperitibo bat eskaini zen, eta horrekin bukaera eman zitzaion programa ofizialari. Herrian zehar bisitaldi bat egitea aurrikusita zegoen, baina Uxue Barkos presidentek parlamentuan egiteko zuen agerpenak bertan behera utzi zituen bisitaldiko planak.



## CEDERNA GARALUR, 2017KO BALANTZEA

Pasa den urtarrilaren 17an Arripodasen egin zen Cederna-Garaluren Agentziako 2017 urteko balantzea eta 2018.eneko lan-lerroak ezagutzera emateko bilera.

Bileran zehar ezagutzera eman ziren Nafarroako Landa Garapena programaren Leader proiektuen inguruan exekutututako, martxan jarritako eta exekutatu gabeko jarduerak guztiak, hala nola Auripirinioko langabezia tasaren eboluzioa, enpresak sustatzearen, sortzearen edo egonkortzearen alde egindako lan guztiak.



Arlo ekonomiko guztiak aztertu ziren, eta industria, turismo eta zerbitzuen arloak bereziki. Baina baita ingurune eta ondasunarekin lotutakoak, hala nola proiektu enblematikoak, Iratiko Bide Naturalaren berreskurapena, Pirinioko Kaltzada erromatarra edo Artzibarko eta Orozko urtegiaren atzealdeko presak.

Laburbilduz, 2017.enean, 148 proiektu aztertu ziren agentzian: 69 pribatuak eta 79 publikoak, udaletatik sustaturikoak.



## FORMAKUNTZA IKASTAROKAK

Cederna Garalurrek Nafarroako mendialdeko zenbait herritan antolatutako formazio ikastaroen barnean, 2018 urteko lehen hiru hilabeteko egitarauan, Agoitzen bi tailer egin ziren "Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko" eta "Estresa jasaten ikastea". Tutorial horiek pertsona ekintzaileei eta autonomoei zuzenduta egin ziren batik bat.

Jarduerak hauek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutakoak dira eta Ekintzaileari Laguntzeko Nafar-Sareak bideratzen ditu. Cederna Garalur eremu horretan lan egiten du.

## BANDOA BOTATZEN DUGU BERRIRO, ETA TELEFONO BIDEZKO ARRETA ZERBITZUA ERE



Duela egun gutxi Udal Bandoa martxan jarri da berriro. Iaz bandoa botatzeko sistemaren gainean eroritako tximistak bando sistema osoa suntsitu zuen eta konpondu eta aldatu behar izan dugu. Egoera hori profitatuz, aldi berean bozgorailu zaharrenak aldatu dira. Horri esker, Udal Bandoak entzungo dira astelehen, asteazken eta ostiraletan eguerdiko ordu bietan.

Beste gai bati dagokionez, Agoizko Udalak bere telefono sistema berri duela jakinarazi nahi dizuegu. Orain, 948 33 60 05 telefono zenbakira deitu eta gero, deia arazoaren arabera zenbaki bat edo beste bat zapaltzea eskatuko du zerbitzuak: 1 zenbakia zerbitzu orokorren arretarako; 2 zenbakia diru-bilketa eta zergen inguruko arreta jasotzeko; 3 zenbakia berantortasunaz mintzatzeko; eta 4 zenbakia kontabilitatearen eta hornitzaileen hizpide gaietarako da.

Gainontzeko Udal Zerbitzuek beraien telefono zenbaki propioa dute eta aldizkari honetan dituzue eskuragai, baita webgunean eta Udal app-ean ere.



## BANDA ZABALA AGOITZERA AILEGATU DA

Berriki ikusi dugu gure herriko erdigunean, hala nola Agoitz Iruñearekin lotzen duen errepidean zehar, zuntz optikoa gure herrira ekarri ahal izateko egiten ari diren obrak.

Honela jasota dago Nafarroako Gobernuak, Nasertic elkarte publikoarekin batera, eginiko Plan Zuzentzailean. Horren arabera, Nafarroako herri guztiek banda zabalarekiko lotura izanen dute 2021. urterako. Zuntz optikoa foru komunitate osora zabalduko



da, heldu diren 5 urteetan zehar, eta horretarako 31,35 milioiko inbertsio publikoa egingen da.

Momentuz, Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu zuntz optikoa industrialdeko sarreran dagoen puntu zehatz batera eramateko gastuak. Han txabola bat egin da, eta bertatik banatzen dira Gobernuak herrian dituen zerbitzuetako egoitzetara: ikastetxea, epaitegi, osasun etxe, liburutegi, suhiltzaileen parke, bide-zaintza, enplegu zerbitzu eta nekazal agentziara.

Gainera, prest utziko dituzte zuntz optikoa hartzeko lotuneak udaletxean, 0-3 urtekoentzako zentroan, Kultur Etxean eta Kanpondoan, eta horrela berehala ekin ahal izanen zio zuntz optikoari lotzeari.

Momentuz, gobernuen egoitzek bakarrik izanen dute banda zabalera, eta Agoitz osora zabaltzeko telefonia operadore batek egin beharko du proposamena. Lehen pauso hori oso garrantzitsua da, oztoporik handiena, zuntza gure herrira ekartzea alegia, gaindituta gelditu delako.

Datozen egunotan horren inguruan berriki izanen dugulakoan gaude. Eduki bezain laster helaraziko dizkizuegu.

## INTERFERENTZIAK TB-REKIN? WWW.LLEGA800.ES

Duela denboraldi batetik aurrera, telefonia mugikorreko operatzaileak laugarren generazioko zerbitzuak eskaintzen ari dira Agoitzen. Teknologia berri hori esker abiadura handiko lotura mugikorrek egin daitezke eta, horren eraginez, eraikinetako estaldura hobetu eta estaldura geografiko sakonagoa lotu, landa eremuetan bereziki.

4. belaunaldiko zerbitzu mugikorrek 800 MHz-ko frekuentzia erabiltzen dute, hots, lehenengo lurreko telebista digitalak (TDT) erabiltzen zuen bera; eta, horrenbestez, telebista seinalean interferentziak egon daitezke.



Herriko edozeinek [www.llega800.es](http://www.llega800.es)-ek eskaintzen duen zerbitzua erabil dezake sintonizatutako kanalak bete-betean ikusteko, telebista operazio txiki bat egon ondoren.

Oso prozesu erraza da. Intzidentzia erregistratzeko, TDT seinalea ongi jasotzen ez bada, doan deitu daiteke honako telefono honetara 900 833 999, edo, bestela, [www.llega800.es](http://www.llega800.es) webgunera sar daiteke eta han formulario bat bete. Erabiltzailearentzako harrera zentroak doan konponduko ditu 4G zabalpenagatik eragindako kalteak.

## AGOIZKO AUZOETAKO SEINALEZTAPENA AMAITU DA

Udalak dagoeneko bukatu du herriko auzoetako izenen seinaleak jartzeko lanekin. Modu horretan Udalak bukatutzat eman du auzokako bileretan jasotako eskakizunei erantzuteko konpromisoetako batekin, izan ere herriaren inguruko auzoak zuzen seinalezatzeko beharra agertu zen bileretan, orain artekoa nahasgarria baitzen.

Hala, auzoetan seinale bertikal berriak daude, udal arautegiak agindutakoari jarraikiz, lekuko izena gazteleraz zein euskaraz agertzen dutenak.



## PACO OYARZUNEK ORDAINDU DITU HILERRIKO HORMAREN GASTUA ETA HERRIKO BIDE BAT

Berriki, eta Paco Oyarzunek lanak ordaindu dituzenez, zaharberritu ahal izan dira hilerriko horma bat eta bide bat. Construcciones Leachek egin ditu bi obrak.

Hilerrian guztiz zaharberritu da sartzeko atea dagoen horma honako lan hauek eginda: mortero zaharra hormigoizko estalkia kendu dira, harriak garbitu eta birkokatu dira, kareharrizko morteroarekin elkartu dira eta porlanezko 60 cm-ko estaldura berria jarri zaio. Horretaz gain, moztu dira hilerriko hormei kalte egiten zioten hiru zuhaitz lehor, eta beste bi gehiago saneatu dira.

Egindako beste lana honakoa izan da: asfaltoa botatzea Nafarroako Ubidearen 0 tartearen ondoan dauden zenbait lur-zati eta zelaietara ailegatzeko bideari. Bide hori Canasarena da, zeinak obra egiteko baimena eman zuen. Adierazitako lan horretaz gain, ezpondak garbitu eta osatu dira.

Inbertsioa 71.000 eurokoa izan da. Horietatik 18.000 hilerrian egindako lanei dagokie, eta gainerako 53.000ak bideari.

Udalak eskertu nahi dio Paco Oyarzuni izan duen eskuzabaltasuna, izan ere udalak ezin izanen zituen egin obra horiek, udaletxe-ko kutxako eskasia dela eta.



## UDAL HILTEGIAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA ONETSI DA

Pasa den urtarrilean egindako osoko bilkura arruntan udalbatzak onetsi zuen, beste gai batzuen artean, Agoizko Udalaren eta «Latasa Hermanos Jangarria S.L.»-ren arteko hitzarmena, udal hiltzgia mantentzeko.

Akordio horren helburua da udalarena den baina Latasa Hnos-ek erabiltzen duen hiltzgiaren instalazioen funtzionamendua eta mantentamendua arautzea.

Hitzarmena, udalbatzak onetsita, indarrean sartu zen 2018.eko

urtarrilaren 1ean, atzeraeraginezkoa da, eta indarrean egonen da funtzionatzeko baimen administratiboa indarrena dagoen bitartean.

Kontratuan hainbat baldintza ezarri dira, eta instalazioa erabiltzen duen enpresaren kargura joanen dira hiltzgiaren instalazioetan egiten diren jardueretatik ondorioztatzen diren gastu guztiak: intsektuak, arratoiak eta gainerako karraskariak antzemateko eta galazteko programak, hala nola eraikineko treneriko elektrizitatea eta iturgintza lanak.



## PERTSONA ERREFUXIATUAK AGOITZERA HELDU DIRA

Azaroan, Siriatik hiru familia heldu ziren, Libiako errefuxiatuen kanpamendu batetik bertaratu dira gurera, han hiru eta lau urtez bizi eta gero. Guztira, hamazortzi pertsona daude errefuxiatu Agoitzen.

Harrera Plana Nafarroako Gurutze Gorriaren kudeaketaren bidez egiten da eta horri loturik, talde bat sortu da boluntarioki laguntzeko. Gaztelania irakasteaz gain, baliabide ezberdinak eskuratze-ko laguntza eskaintzen dute eta pertsona bakoitzaren bidaide dira.

Agoizko Udalak ekimen honetan aktiboki parte hartzeko gonbita luzatzen dizue. Horretarako, Teresa eta Martaren telefono zenbakiak eskuratzen dizkizuegu, Agoitzen proiektua aurrera eramateko ardura duten pertsonak: 678 402 271.

Hitz hauen bidez, bizilagun berriei ongi etorria eman nahi dizuegu eta eskerrak helarazi nahi dizkizuegu proiektu hau posible bilakatzeko duzun pertsona, elkarte eta alor publikoko lagunei.



## GENERO BORTIZKERIAREN AURKAKO ZIKLOA

18 urte dira Nazio Batuen Biltzar Orokorak onartu zuela kolektibo feministaren aldarrikapena, alegia, urteko egutegian egun bat finkatzea, emakumeen aurkako bortizkeria mundu osoan ikustarazi eta errefuxatzeko. Horrekin gobernuak, instituzio publikoek, nazioarteko erakundeek eta gizarte zibilak hausnar eta konpromisoak har zitzatela bilatu nahi zen.

Finkaturiko eguna azaroaren 25a zen, eta emakumeen aurkako Bortizkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna deitu zitzaion.

Agoizko Udalak, Sarean eta Txinparta Gazte Mugimendurekin batera, hainbait aktibitate antolatu zituen sexu bortizkeriaren aurkako zikloa deitutakoaren barnean.

Ziklo horren helburuen artean dago emakumeen aurkako bortizkeria salatzea, horren inguruan egiten ari garenaz eta bortizkeria eta eraso matxistak ezabatzeko zer egin genezakeenaren inguruan hausnartzea.

**HITZALDIA «¿Zergatik gara matxistak? Nola osatzen den maskulino singularra».** Teresa Iriarte Martínek eta Roberto Hinojosa Afán de Riverak (Acción contra la Trata-ko kideak) lagundu zuten matxismoarekin lotutako zenbait alderdien inguruan hausnartzen: «Zer da gizonetzakoa izatea?». Gaur egun, gure kulturaren testuinguan duen esanahia ulertzeko gakoak. Hitzaldian zehaztu zituzten zer ondorio dituen, emakumeentzako zein gizonetzakoa, "benetako gizonetasunaren" kanonei eusteko nahiak. Horretaz gain, gure inguruan entzuten eta bizi ditugun ohiko mitoak bertan behera botatzen saiatu ziren.

**PROIEKZIOA ETA EZTABAIDA** Aurten emakumearen inguruko eztabaida pizteko aukeratutako filma «Hamairu arrosak» izan zen.

Filma bukatutakoan solasaldi interesgarri bat izan zen Esther Carrizo Carreterorekin (aktorea, clown, adierazpen eta autodefentsa feministako monitorea).

Filmak guda zibiliaren garaian emakumeak izan zuen paperaz zer pentsatu eman zigun. Halaber, gaur egun gertatzen denarekin parekotasuna ikusteko parada eman zuen: sexu bortizkeria, ahalmentzea, ikuspegi feminista.

**MAHAI INGURUA: «Eta zuek... Nola borrokatzen duzue sexu bortizkeriaren aurka?»** Mahai inguruan mugimendu feministako hiru kide egon ziren: Amaia Zufia -Bilgune feminista-, Iratxe Álvarez -sexu bortizkeriaren aurkako plataforma- eta Begoña Laquidain -Noaingo oinarritzko eskualdeko Gizarte Zerbitzuko berdintasun teknikaria-.

**OROIMEN EKITALDIA: «Agoitzen ez dugu sexu erasorik onartzen».** Azaroaren 25ean, larunbata, Emakumeen aurkako bortizkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna ospatzen dela, omenaldia eskaini zitzaion bortizkeria matxistak eraildako emakume gutzietan eta haien seme-alabei.

58 kanpai-jotzek eman zioten hasiera ekitaldiari. Bakoitza eraildako emakume edo seme-alaba bat ordezkatzeko zuen.

58 agoizkoek ordezkatu zituzten gizartearen gaitz horrek eraildako 58 emakumeak. Bakoitzaren izena erandakoan auresku bat dantzatu zen haien ohorean.

Genero bortizkeriaren aurka antolatutako zikloan herriko hirurehun bat pertsonak parte hartu zuten.



## ELIKAGAIEN BANKUA

Agoitzen, egun, elikagaien banaketa egiteko ardura duten bi erakunde daude: Cáritas Diocesana eta Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Bi zerbitzuen laguntza jasotzeko, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetara jo beharra dago. Behin eskaera eginda, erakunde bakoitzak banaketa lanak bere aldetik kudeatzen ditu.



Urtero, Europar Batasunak diruz lagundutako elikagaien bankuaren laguntza eskaera egiten da eta 3.500kg eta 4.000 kg arteko elikagai sorta jasotzen dira gutxi gora behera hiru hilabeteetan behin; horiek bi txandatan banatzen ahalegintzen dira, horrela banaketa hilean behin egiten ohi da.

Gehienetan banatzen diren elikagaiak oinarritzko jakiak izaten dira eta iraugintze data luzea dutenak: dilistak, arroza, olioia, fruta kontserban jarria, pastak, umeentzako pote-janaria eta lekaleak, gailetak, hegala-burra, txitxirioak, leka berdea...

Zerbitzu honen onuraduna izan daiteke Izagako mankomunitateko edozein udalerriko biztanlea, bertako erroldan baldin badago eta dagokion agiri guztiak behar bezala aurkezten baldin baditu.

2017 urtean 75 elkarbizitza-unitate (262 pertsona) onuradun izan dira, horietatik 65 elkarbizitza-unitate Agoizko bizilagunak dira.

## OINARRIZKO BIZI-EUSKARRIEN ETA DESFIBRILATZAILEEN ERABILERA EGOKIAREN ZIURTAGIRIA BERRIZ ESKURATZEKO IKASTAROA

Joan den urtarrilaren 10ean, Agoitzen, Oinarritzko-Bizi Euskarrien eta desfibriladoreen inguruko ikastaro bat egon zen interesatuek ziurtagiria berritzeko. Clint Jean Louis, Susana Miranda eta Ana Fernándezek izan ziren ikastaroko irakasleak, haiek "El abc que salva vidas" elkarteak kideak dira. Ikastaroa Udaletxeko Osasun Zerbitzuak antolatu zuen.

Agoitzen bost desfibriladore ditugu: osasun-etxean, Kanpondoko Kirol Gunean, San Migueleko futbol zelai berrian, DYako anbulantzia eta DYako egoitzan. Udaletxeak Oinarritzko-Bizi Euskarri hauen formazioaren alde dago eta aurrerantzean ere, erabiltzen jakiteko ikastaroak eta tailerrak egiteko apustua egin du.

2015 urtean ikastaro hau egin zutenek berriro egin behar izan dute oraingoan, bi urtean behin ziurtagiria berritzea derrigorrezkoa delako. Agoizko langile hauek ikastaroa burutu dute: Kanpondoko Kirol Guneko langileak, San Miguel I.P.-ko langileak, Udaletxeko Brigada eta Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen langileak.

Desfibriladore bat aparatu elektronikoa eramangarria da, bihotzeko arritmia txar bat antzematen ahal duena, eta kasua baldin bada, bihotzeraino korrante elektriko bat zuzentzen du bihotzaren

## "OSASUNEO NORBANAKOAREN KARPETA", ESKURA

Nafarroako herritarrak beren Norbanakoaren Osasun Karpeta (CPS) sartzen ahal dira dagoeneko. Bertan eskura dago informazio kliniko eta zenbait tramite elektronikoko berriak egiteko aukera ematen du, txostenak zuzenean eskatzea, zitak deuseztatzea edo jarraipenerako datuak erreferentziatzeko profesionalekin partekatzea, besteak beste.

Erabiltzaileek, gainera, agendan begiratu ditzakete programatutako zitak, hartzen dituzten botikak edo kontsultan agindu dieten bizimodua.

Interesatutakoak ziurtagiri digitala edo NAN digitalaren bidez sartu ahal dira, eta horretarako ez dute izapide berezirik egin beharrik izanen. Bestela, beren osasun etxean eskatuko ahalko dute

martxa berreskuratzeko xedez, elektrikoa eta mekanikoa. Frogaturik dago gaixoaren biziraupena handitzen ahal dela, inolako ondorioekin edo gutxi batzuekin, jarraibide hauek egitean: bihotz-arritmia bat goiz antzematea, larrialdietako osasun zerbitzuak (112) alertan jartzea, bihotz-biriken bizkortze goiztiararen hasiera egitea eta lekuko batek desfibriladore goiztiarra aplikatzea.

[www.elabcquesalvidas.org](http://www.elabcquesalvidas.org)  
[www.facebook.com/elabcquesalvidas](https://www.facebook.com/elabcquesalvidas)



kreditaturiko sarbide bat. Azken modu hori da Osasun Departamentuak prestatu duena, herritarrei zerbitzu horretara sartzeko aukera emateko, izan ere kreditatzeko aipatutako lehenengo bi aukera horiek ez daude orokortuta herritarren artean.



## AURRETIAZKO BORONDATEEN DOKUMENTUA OSASUN ETXEAN TRAMITATU DAITEKE

Pasa den abenduaren 21etik ez geroztik Aurretiazko Borondateen Agiria (ABA) edo "Bizi-testamentua" deitutakoa tramitatu ahal da Nafarroako Foru Komunitateko osasun etxe guztietan, aurretiazko borondateen erregistroan sartzeko.

ABA ez da oraindik sobera ezaguna eta gaixoentzako ez da oso eskuragarria. Gainera, Aurretiazko Borondateen Erregistroan berri gaitu behar duen medikuntzako profesionalentzako ez dago

## ETXEKO OSPITALERATZE ZERBITZUA ESKUALDE GEHIAGOETARA ZABALDU DA, ETA HORIEN ARTEAN AGOITZERA

Nafarroako Ospitale Guneak (CHN) burutu du Etxeko Ospitaleratzearen (HaD) zabalpena Iruñerriko Osasun eskualde osora, eta, horren ondorioz, asistentzia eredu horrekin atentzioa eman ahalgo zaie dira eremuko 480.000 biztanleei.

Zerbitzua bultzatzeko zazpi mediku berri aritzen dira eta hamasei erizain. Horretaz gain, 10 renting ibilgailu berri jarri dira, desplazamenduetarako.

Zerbitzuaren azken zabalpenaren bidez, Nafarroako Ekialdea sartu da zerbitzuaren mapan. Ospitaleratze ekipo berri bat aktiba-

## HIRIKO URAREN ZIKLO INTEGRALAREN PLAN ZUZENDARIA 2019-2030

Pasa den urtarrilaren 23an hasi zen hiriko uraren ziklo integralaren plan zuzendaria 2019-2030 izeneko proiektuaren partaidetza prozesua. Horren bidez herritarrei, instituzioei edo interesa duen edozein kolektibori ezagutzera eman nahi zaie zer egiteko asmoa dagoen, datozen bi seiurtekoetan, ur edangarriaren hornidurari, saneamendu eta arazketari dagokienez (ura hartzen denean hasi eta behin araztu ondoren berriro ibaira itzultzen den arte).

Prozesuan pertsonen ekarpenak, ideiak, kritikak eta iradokizunak jasoko dira; izan ere, helburua plana aberastea, berrestea edo aldatzea da. Nafarroako Gobernu Ingurune, Landa Garapen eta Toki Administrazio Departamentuak egindakoa da, Osasun eta Lan Publikoko Institutuarekin lankidetzan. Datoren urteetarako uraren arloan klima aldaketari aurre egiteko tresna nagusietako bat izan nahi du dokumentuak. NILSA enpresa publikoak erredaktatu du proiektua eta partaidetza prozesua.

Modu berean, plan honen helburua da erregistratzen ez den kontsumoa (isuriak, galerak, kontrolatu gabeko kontsumoak eta abar) gutxitzea, zenbait lekutan %60ekoa baita. Nafarroan, ez da eza gutzitzen nora joaten den, batzate beste, hartutako uraren % 34.

Planak Nafarroa prestatu nahi du klima aldaketari aurre egiteko, alegia, ur baliabide gutxiagoko eszenarioetarako, zeinetan ur baliabide gutxiago eta lehor-aldi luzeagoak eta maizkoagoak aurrakusten diren. Errokatat hartu da zerbitzu osoko finantza jasagarritasuna eta agertzen ari diren kutsagarrien problemeei aurre egitea.

Partaidetza bilkura guztiak egindakoan, Nafarroako Gobernuak aztertuko du horien bitartean edo Gobernu Irekia izeneko ata-

oso ikusgai ere.

Hemendik aurrera, gainera, Nafarroako osasun etxe guztietan egin ahalgo dira erregistroan inskribatzeko tramiteak. Denek beren auzo edo herriko osasun etxean aholkua jaso eta agiria utzi dezakete. Gizarte Laneko profesionalak izanen dira zentro bakoitzeko erreferenteak. Haiekin zita eskatu eta interesatuak ABA aurkezteko beharrezko informazioa eta laguntza jasoko du.


tu da, zortzi erri zerbitzua emateko modukoa, Zangoza, Agoitz, Auritz, Zaraitzu eta Izabako oinarriko osasun eskualdeetan bizi diren 22.000 pertsonen asistentzia emateko.

Etxeko Ospitaleratze ekipoak gaixoa bisitatzeko, aldian-aldian, eta etxean bertan egiten dituzten beharrezko diagnosi probak, analisiak, elektrokardiogramak edo oxigeno saturazioa, adibidez. Modu berean, prozedura terapeutikoak egiten dira: elikatze artifiziala, oxigenoterapia, sendaketa konplexuak eta odol-transfusioak, besteak beste, ospitalean eskaintzen den arreta, segurtasun eta berme guztiak.

riaren bidez jasotako ekarpen guztiak. Adierazitako atari horretan eskura egonena da plan horri buruzko dokumentazio guztia.

Ondoren, bigarren bueltako bilerak egingen dira. Hau da, azterketa bilkuretan parte hartu dutenei emandako ekarpenen azken erabileraren inguruko informazioa emanen zaie: jasoko diren edo ez, desestimatzeko arrazoiak (atzeratuta botatzen gero) eta zalantzak argitzezko aukera emanen da ere.

### UR BALIABIDEAK



## AGOIZKO UDALAREN HERRI-LURRAK

Ondarearen defentsa udaletxe guztien zeregin nagusietako bat da. Udal arduradunek udalerraren (hots, bizilagun guztien) ondasun guztiak katastroan zuzenki gordetzeko bete beharra dute.

Printzipio horren arabera, Agoizko Udalak Ondare Batzordearekin eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin prozesu bat hasi du herriko lur eremu guztiak ezagutu, zenbatu eta erregistratzeko eta Ondare Komunalaren kategoriarekin izendatzeko.

Helburu horrekin, 2017ko abenduaren 20ko Udalbatza Osoan Herri-lurren erabilerarako Udal Arautegi bat onartu zen eta Agoizko Udalaren jabetzaren eskuetan zeuden herriko landa-lursailak Agoizko Udaleko Komunalaren jabetzakoak izatera bihurtu dira.

Lur komunalen edo herri lurren babes legal handiagoa bilatu nahi izan dugulako Agoizko Udalaren jabetza izatetik Agoizko Herri Ondasunen jabetza izatera aldatu ditugu titulartasun-agiriak. Ho-



## KONPOST-GUNERA IRISTEKO SARRERA BERRIA

Osasun-etxe ondoko konpost-gune komunitarioa iristeko eskailera berriak egin dira. Horiei esker, zenbait etxebizitzetatik gune honetara joateko bidea erraztu nahi da, familia gehiagok komunitatearen konpost lanetan parte hartzeko. Zabor bilketa modu hau oso gomendagarria da hondakinen kudeaketarako eta ingurumena zaintzeko.



rela, herriko lurrek ezin besterenduzko jabegoa dute, ez denborak ez eta inolako bahiketa aginduek ezin diote jabeari kendu, eskuz aldatzera derrigortu edota bahitu. Horrez gero, ezin dira lur horiek saldu, ezin dira alokatu edo atxiki, eta bere jabetza publikoa da bere ezaugarri guztiekin, nahiz eta jabetza pribatuak bidegabeko erabili. Auzola mendia eta Zubialdea ondasun komunala dira eta adibide moduan ditugu. Hemendik aurrera, Agoizko Udalaren jabetzakoak izan lur-sail guztiak Agoizko Ondasun Komunalak dira, Legarreko Udal baratzak barne, "Zubialdeko" eta "La Cañonera" lur-sailen pareko.

Hartutako erabakia oso garrantzitsua da, baina lehen pausu bat besterik ez da. Orain, Nafarroako Gobernuaren teknikarien laguntzaz beti ere, Agoizko Udaletxearen borondatea da herriko lur-sail komunal guztiak aztertzea, neurtzea eta zehatz erregistratzea, katastroan lur komunal guztiak benetako neurri guztiekin agertzeko; landetako lur eremuak benetako neurriekin ager daitezkeen txostenetan. Hori guztia egiteko, beharrezkoak diren indusketa topografikoak egingo dira, esan bezala, Nafarroako Gobernuaren ikuskaritza lanarekin.

Lan hau tentuz eta poliki egiten da, eta konplexua da, baina beharrezkoa da. Behin lana amaitzen denean, Agoizko Herriko-lurren behin betiko mapa fidagarria edukiko dugu. Urteetan dokumentazio hau faltan izan dugu, eta behin osatzen dugunean, gure ondasuna zehatz ezagutu, babestu eta kudeatzea ahalbidetuko digu. Lan handia aparte utzita, egitea merezi du, zalantzarik gabe.

Egindako pausu guztien berri emango dizuegu eta zuen esanetara gaude beti bezala, edozein zalantza argitu edo ekarpen egin nahi baldin baduzue.

## ESKOLAKO KONPOSTAJE ETA BIRZIKLATZE PROIEKTUAK

Iratiko HHS Mankomunitatek eta Agoizko San Migel Ikastetxe Publikoak hiru urte dararamatzate elkarlanean eskolan konpostaje eta birziklatze proiektua aurrera eramaten. Ikasgela guztietan hondakin guztiak bereizteko zaborontziak dituzte eta orain, patioan baliabideak jarriko dira heziketa proiektua garatzeko.



Horretarako, kanpoaldean bi modulu ipini dituzte eta haurrek tapakien koloreei esker non zein hondakin bota jakin dezakete.

### OROITU:

Horia ontziak botatzeko, urdina papera eta kartoia botatzeko, grisa gainontzeko hondakinak botatzeko (birziklatu eta konpostatu ezin dena).

Hondakin organikoak KONPOST-ONTZIAN bota!

## H•ARITU, HEZKUNTZAREN ALDEKO SAREA, SORTU DA

H•aritu izenarekin sortu da Agoitzen hezkuntzaren arloan lan egiten duen sarea. Herriko zenbait entitate eta kolektibo elkartu dira haurrenganako eta nerabeenganako tratu egokiak bultzatzeko, eta horretarako urteko programa osatu dute, herri osora zabalik egonen dena. Ikasturte osoan zehar garatuko da programa, eta haren barnean egonen dira, besteak beste, tailerrak, mintegiak, hitzaldiak eta abar. Herrikoek horien berri izanen dute etxeko gutunontzietan, udaleko web-orrian edo kartelen bidez.

Taupadak Haur eskolak (52 haur), San Migel Ikastetxe Publiko eta Institutua (Agoizko eta inguruko herrietako 460 ikasle), ikastetxeko eta 0-3 urtekoen zentzoko guraso elkarteak, Agoizko Udala eta Euskara Zerbitzua, eta Izaga Gizarte Zerbitzuen mankomunitateak dira programa lideratzen duten entitateak.



Proposamenak alderdi positiboan eragin nahi du beti; eta, gainera, bere helburua da gizartearen zabaltea etorkizuneko belaunaldien hezkuntzaren al-

deko formakuntza etengabea beharrezkoa denaren ustea.

'Nola izan ama-aita eta nola hezi', 'Zorriak', 'Ahoko garbitasuna', 'Sexualitatea', 'Heziketa emozionala', 'Ciber-bullyng'... horietatik dira azarotik ekainera bitartean landuko diren gaietako batzuk.



## IKASTETXEAK JARDUNALDI IRAUNKORRAREN ALDE EGINDU

Urtarrilaren 16, 17 eta 18an, Agoizko San Migel LH Ikastetxe eta DBH Institutuan bozketak egin ziren jardunaldiaren iraupenaren inguruan, datorren ikasturtean eragina izanen lukeena.



## BI IKASTETXEETAKO JANTOKI ZERBITZUAK BATU DIRA

Agoizko Ikastetxe Publikoak eta haur eskolak, biak, jantoki zerbitzua dute. Baina horietatik lehenak bakarrik du funtzio hori betetzeko beharrezko azpiegitura nahikoa eta sukalde lanetan aritze-



ko langileria, Jangarria enpresarekin kontratatuta daudenak. Haur eskolak sukaldari ez duenez, azkenaldian catering zerbitzua erabili du otorduak izateko.

Azken hilabeteetan, Agoizko Udala, haur eskola, ikastetxe publikoa, IGEa eta bertako sukaldariak gogor aritu dira elkarlanean Jangarriarekin batera bi ikastetxeetako ikasleentzako menu guztiak ikastetxeko sukaldetik bertatik prestatu ahal izateko.

Egun, Jangarria enpresarekin adostasun batera heldu eta gero, bi ikastetxeetako jantoki zerbitzuak batzea lortu da. Horretarako, haur eskolan lanean aritzeko pertsona bat kontratatu da eguneari bi orduz: bere zereginekoa sukaldariarekin batera haur eskolako haurrentzako menuak prestatzea da eta gero, termoak dituen guri berezi batean menuak haur eskolaraino eraman behar ditu eta bertan, lanaldia amaitzen du jantokiko eta garbiketako zerbitzua eginez.

Egunero, sukaldariak eta sukalde-laguntzaileak 270 menu prestatzen dituzte ikastetxe publikoko sukaldean ikasle, irakasle eta dieta bereziak zenbaturik.

## ESKOLA PUBLIKOKO AZPIEGITURETAKO HOBETUNTZAK

Ikastetxe publikoaren patioa azpiegiturak hobetzeko Agoizko Udaleko langileek hainbat lan egin dituzte azken hilabeteetan.

Alde batetik, belardi guneetan ureztatze sistema jarri da eta berri erein egin da urte osoan baldintza egokietan egoteko. Gainera, sarrerako lorategia itxura berria du landare berriei esker eta lurzorua zaindu delako.



Sarrerako iturria guztiz berri da, denborak nabarmenki hondatua zuen eta orain berria dirudi.

Azkeneko lana da sarreran jarri den atezain eta bideo zerbitzu automatikoa. Horrekin eskola orduetan sartu eta irteerak kontrolatu egingo dira eta ikasle eta irakasleen segurtasuna handitu egingo da.



## UDAL TXIKI BERRIA, OSATURIK

Aurten ere Lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleek bozkatu eta aukeratu dute Udal Txikia, eta aukeraturakoek herriko haurrak ordezkatu zituzte, urte osoan zehar egiten diren ekitaldietan. Atera berri zen Udalbatza estreinatu zen hemendik aurrera ohikoak izanen diren konpromiso eta zita sortarekin.

Abenduaren erdialdean, Udaletxeko bilkura aretoan, osatu eta ofizialduko da Udalbatza Txikia. Bilkuran, Arxel González alkate ohiak agente-makila emanen dio Ilazki Elizari alkate berriari. Modu berean, zinegotzi zaharrek agentea utziko diete zinegotzi berriei.

Udalbatza berria bere eginkizunean estreinatuko da datozen egunotan, Olentzero eta Errege magoei harrera egiten.

Hau da udalbatza txiki berria osatzen dutenak:

Alkatea: Ilazki Elizari  
Zinegotziak: Aritz Ávila, Ainara Clavería, Alfredo Cueva, Ivan Domingues, Patxi Esain, Alba Gorriño, Naroa Orradre, Iker Payan, Julen Sajardo, Manu Salvatierra, June San Martín  
Ordezkoak: Oñate Iribarren, Oskia Larrea, Íñigo Marcos



### ERA. BELAUNALDI BERRIEN AUKERA

Nafarroako toki administrazioetako 28 euskara zerbitzuek, Agoitz haien artean, era.eus plataforma digitala sortu dute, euskaraz ikasten ari diren haurren familiei horien ikas-prozesuan laguntzeko baliabideak eskaintzeko. Ikasleek bere adinari egokitutako hizkuntza gaitasun eta ezagupenak eskuratzen dituzte. Hala ere, zenbaitetan euskaraz gizartean presentzia urria duenez, oso onuragarria da eskolan eskuratutako gaitasunak hortik kanpo lantzea, etxean, eskolaz kanpoko aktibitateetan, esaterako.

Gurasoen zalantzak argitzeko informazioa eskainzen du orriak, eta, gainera, honako baliabide hauek: jolasak, musika, aplikazioak, kantak, hiztegiak, eskualdeko agenda, eskolaz kanpoko akibitateak...

Sartu era.eus-en eta gozatu belaunaldi berrien aukeraz.



### EUSKARABIDEAK ETA 24 UDALEK, AGOIZKOAK BARNE, D EREDUAN ESKOLATZERA ANIMATU DUTE

Euskarabideak eta Nafarroako 24 toki entitatek aurten hezkuntza sisteman hasiko diren haurren gurasoei zuzendutako kanpaina, haientzat euskarazko eredu hauta dezaten. D eredu defen datu dute, duen kalitatea, esperientzia pedagogikoa eta elebitasunaren onurengatik.

Hala egiaztatzen dute Nafarroan duela 40 urtez geroztik presentzia duen hizkuntza eredu horren emaitzek. Ikasturte honetan matrikula egin duten 6.341 haur berrien artean, % 30ak aukeratu du D eredu, %20ak A eredu (gaztelaniazko irakazkuntza, euskara ikasgai duena) eta gainerako % 50ak G eredu (gaztelaniazko irakazkuntza, euskara ikasgai eduki gabe) nahiago izan du.

Kanpaina "Aukeratu euskara, aukeratu D eredu" lelopean aurkeztu da, eta Euskarabidea eta gaien interesa agertu duten udalen artean (Agoitzkoa ere) lankide-



tzan bultzatu, diseinatu eta planifikatutako inizatiba da.

Kanpainaren aurkezpen eta hasiera emateko ekitaldian Unai Lako aritu zen. Euskara Zerbitzua duten udal, mankomunitate eta entitateen izenean. Bertan adierazi zuen kanpainan inplikaturako entitateek ongi dakitela zein garrantzitsua den hizkuntza ezagutzea, «gero eta anitzagoa eta globalizatuagoa dagoen gizarte honetan, eleaniztasunak komunitatea kohesionatzen baitu, kultur integrazioak baimentzen baitu, eta aniztasuna ezagutzeko eta errespetatzeko laguntzen du; halaber, aukera profesional eta sozial gehiago eskaintzen ditu».

Agoizko alkateak adierazi zuenez, «Euskarabideak ez badu sustatzen hezkuntzaren bidezko euskararen ezagutza, ez litzateke zentzu handikoa izaneren entitatearen iza-tea» eta «gure hizkuntzaren defentsan irmoki eta ausardiarekin aritzera» animatu zuen.

### "EUSKARAZ ESKATZEA XINPLEA DA" KANPAINA

Agoizko Udaleko Euskara Arloak kanpaina bat abiatu du «Euskaraz eskatzea xinplea da» lemapean, gure herriko euskaldunak euskaraz aritu daitezela hizkuntza horretan arreta emateko moduan duten gure herriko komertzio eta establezimenduetan.

Hilabete hauetan zehar garatzen ari da kanpainaren lehenengo fasea, eta poliki-poliki jartzen ari dira Agoizko establezimenduetan bakoitzera egokitutako kartelak.

Behin fase hori bukatuta, hasiko da kanpainaren bigarren fasea: laguntza hiztegi bat prestatuko da, euskaldunetz gain, ikasten ari direnen eskura jarriko dena, erabiltzen animatzeko asmoarekin.



### ENTZUTEKO EKIPOAK EROSI DIRA

Red de Teatros de Navarra-Nafarroako Antzoki Sareak batera erosi ditu 23 herrientzako entzungarritasuna bultzatzeko ekipoak. Agoitz dago ekipoak erosi eta jasoko dituen herrien artean.

Soinua handitzeko ekipoak entzuteko ezintasuna duten pertsonentzako pentsatuta daude, eta baita antzezlanen elkarriketak guztiz ongi ez entzuteagatik antzokietara joaten ez diren pertsona horientzako ere.

Ekipo horiek guztiak batera erosteagatik, posiblea izan da %50 merkeago lortzea. Izan ere, enpresa hornitzaileak prezio berezia

egin du eta Red de Teatros de Navarra-Nafarroako Antzoki Sareak ere ekarpena egin du, Nafarroako Gobernuarekin duen urte antziteko hitzarmenari esker.

Agoizko Udalak uste du erosketak honekin aldaketa tekniko kalitatiboa emanen dela, jarduera eszeniko guztiei dagokienez. Horri esker lortuko dugu oraindik herriar gehiagok disfrutatzea arte eszenikoekin.

Berehala hasiko da zerbitzua eskaintzen.

### SARRERAK SALGAI, APP-EN BIDEZ ERE

Agoizko Udaleko APP ofiziala berri da, eta botoi berri bat dauka orain, Kultur Etxean egiten diren ikuskizun eta ekitaldietako sarrerak erosi ahal izateko. Modu horretan hiru dira, dagoeneko, sarrerak erosteko bideak: www.aoiz.es web-gunean, leihatilan (ekitaldia hasi baino ordu bat lehenago) eta, orain APP-a. Botoi berria ager zaigun, Play Store edo App Store-ra joan eta aplikazioa eguneratu behar dugu (doan da).



### EL IRATI, S.A-REN INGURUKO ERAKUSKETA EGUESIBARREN ETA NAFARROAKO ARTXIBATEGIAN

El Irati, S.A-ren inguruko erakusketak arrakasta handia izan zuen Agoitzen, eta horren ondoren, Eguesibarko Udalak lekukoa hartu zuen. Azaroan, Sarrigurengo Udaletxeko aretonagusian erakusketa ikusgai egon da, bailarako Zientziaren Astea ospatu zuten aldi berean eta erakusketarekin egitaraua osatu egin zen. Víctor Manuel Egiak (gaztelaniaz) eta Idoia Zabaltzak (euskaraz) erakusketaren zioa azaldu zuten bisita gidatuetan eta bizilagun askok parte hartu zuten.

Otsailean, erakusketaren maketak, horma-irudiak eta argazkiak Nafarroako Artxibategi Nagusian ikusgai egon dira eta hiritarrek erantzun ona eman diote.

Ia XX. mende osoan zehar Agoitz eta eskualdearen garapen-motora izan zen enpresa-komplexuaren inguruko erakusketa oso arrakastatsua izan da herrian eta bailaran duen erroagatik eta herriarren erantzunari esker.



### JUAN ANTXIETA, ERRETAULAK NAFARROAN

"Juan Antxieta, erretaulak Nafarroan" izeneko ekimenak piztu duen interesa ikusita, Agoizko Udalak bigarren zita antolatu zuen, Nafarroako herrietan zehar, eskultore ospetsuak egindako erre-



Argazkia: Alfonso Irigoyen

taulak bisitatzeko. Ateraldi berria azaroaren 18an egin zen, aurreko egunetan izandako programa berarekin: Kaseda, Tafalla, Añorbe eta Agoitz. Bigarren honetan parte hartu zuten pertsona gehienak Agoizkoak izan ziren, baina bete zen autobusean zeuden ere Nafarroako beste herri batzuetako jendea, Juan Antxieta arte-lanekin gozatzeko aukera galdu nahi ez zutenak.

Bianako Printzea erakundearentzako gida didaktiko bat prestatzen dabilzate eta udalari hauetako 5. mailako ikasleentzako zuzenduta dago, gaztelaniaz eta euskaraz. Bertako ikastetxeei eskainiko zaie eta ikasle horiekin bisita gidatuak egingo dira, Juan Antxieta ongi ezagutu dezaten eta bere ondare artistikoaren garrantzia kontutan har dezaten.

## AGOITZ HIRIA XII. ARGAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Joan den abenduaren 15ean, eta oraindik ikusgai zeudela "Agoitz Hiria" XII. Argazki Lehiaketara aurkeztutako argazkiak, argazki hoberenentzako sariak banatu ziren Kultur Etxean. Publikoaren saria (300 euro) jaso zuen 'En Aoziz hay una calle adoquinada' izeneko irudiak, Agoizko Edurne Mañú Aristurena. Eta modalitate orokorreko lehen saria (500 euro) izan zen lehiaketa mota haietan ohikoa den Javier Yáñez Sánchezen 'Rincones de Aoziz' argazkiarentzat.

Agoizko Udalak, azken urteetan egiten ohi den moduan, egutegi bat argitaratu du lehiaketara aurkeztutako zenbait argazkiarekin. Egutegia udaletxean eta kultur etxean eros daiteke 3 euroan.



## OMENALDIA, NAFARROAKO GASTRONOMIA ARLOKO BEDERATZI DAMARI



Reyno Gourmetek, Nafarroako nekazal-elikagaien jatorrizko bermea duten produktuak sustatzen dituen markak, 10. urteurrena ospatu zuen. Horren kariatara, omenaldi xume bat egin zien Foru Komunitateko bederatzi emakume sukaldariri, eta horien artean Agoizko bat zegoen, M<sup>a</sup> Dolores Huerta.

## KULTUR BALANTZEA

AZAROA. Azaroan zehar Agoizko Udalak zenbait ekitaldi antolatu ditu. Genero indarkeriaren aurka egindako zikloaz gain, Xabier Idoate artista ospetsuaren «GrafoFenia» erakusketa ikusgai izan dugu. Proposamen grafiko interesgarria izan da, zeinetan, zenbait testuren azpian, igartzen ahal izan ditugu abandonatutako gune industrialek, lantegi, eraikin eta zubien irudiak.

Musikak ere bere leku aizan du. XXIII. Abesbatza Zikloaren barnean, esaterako Londoneko Sansara ganbara abesbatzak kontzertua eskaini zuen Kultur Etxean.

Agoizko Gaitariak kalejiran jo zuten hilabeteko lehen larunbatean, ohikoa den pintxo-potearekin bat eginez.

Mugarik Gabeko Ttuntuneroek hamaikagarren topaketa antolatu zuten, eta ehun bat txistularik bildu zituzten. Aurreko urteetan bezala, goizeko giroa alaitu zuten eskainitako dianekin.

Bilaketak bi kafe-kontzertu antolatu zituen: Kantua, biolina, biolontxelo, tronboia eta zeharkako txirula, melodiaz betetzeko gainezka zegoen Kultur Etxeko José Hierro aretoa.

Ekitaldian hitza hartu zuten zenbait pertsonaia esanguratsuk. Isabel Elizalde Landa Garapen, Ingurune eta Toki Administrazioako kontseilariak azpimarra jarri zuen emakume horien alderdi enpresarial eta sustatzailean, eta gogorarazi zuen haien lurraldeko enbaxadoreak izan direla hainbat hamarkadatan zehar.

Ondoren, Koldo Roderok hitza hartu eta omendutakoekin bizitako momentuen eta gertakariak ekarri nahi izan zuen.

Bukatzeo, Joseba Asiron Iruñeko alkateak mintzaldi hurbil eta kuttuna eman zuen, emakumeek zuzentzen zituzten jatetxeetan bizitako uneak birgogoratzen.

Nafarroako Gastronomia arloko Damak dira, bakoitza bakarra eta errepikaezina. Hauek dira: Juana Mari, Manoli eta Julia Hartza, «Hartza» jatetxeokoa; Resurrección Armendáriz, "Rodero" jatetxeokoa; Atxen Jiménez, «Tubal» jatetxeokoa; Raquel eta Mari Carmen Elizari, «Josetxo» jatetxeokoa; M<sup>a</sup> Dolores Huerta, «Beti Jai» jatetxeokoa; eta Felisa Goñi, «Ventas de Ultzama» jatetxeokoa.

Azaroaren 22an, berriz, Agoizko udal musika eskolak Santa Zezilia eguneko kontzertua eskaini izuen.

Eta arrakasta itzela hilabetearen estreinatu diren bi antzezlanekin. Lehena «Chefs» izan zen, gastronomiaren munduari buruzko obra entretenigarria; eta, bigarrena, «¿Te vienes al moro?» herriko Irati antzerki taldeak eskainitakoa.

Hilabeteko larunbat goizetan tailerrak antolatu dira Garraldi ludotekan. Eta Arkaitz León Muelak «Un giro en el camino. Relatos de Mirthad III» liburua aurkeztu zuen.



ABENDUA. Abendua kultur aktibitatez betea egon da, gehienak Eguberrien eta oporraldi horrek eskaintzen duen denbora librearen kariatara antolatutakoak.

Hilabetearen hasieran Mariano Garcia Musika Bandak emanaldia eman zuen Nafarroaren Eguna zela eta. Herriko jende asko hurbildu zen kontzertura, izan ere publiko fidela du, beti Agoizko musika bandarekin disfrutatzeko prest dagoena.

Modu berean, eta arrakasta bera izan zutela, Eguberrietako gaineko kontzertuez gozatzeko aukera izan genuen: Mariano García Musika Banda eta San Migel Abesbatza Txikiaren arteko kontzertua, elizan; Agoizko Musika Eskolako kontzertua, Kultur Etxean; eta San Migel Abesbatzarena, elizan ere.

San Migel ikastetxeak bete zuen Kultur Etxeko entzutegia urte bukaerako jaia ospatzeko, eta 0-3 urte bitarteko haur eskolak txiki eta haien familiei Olentzerok egin zuen bisita jaso zuen.

Familia osori zuzenduta, TDiferenciaren konpainiaren eskutik «Peter Punk» musikala eskaini zen. Musika ona eta umorea, urteari bukaera emateko antolatutako azken ekitaldian.

Eguberrietan ohikoa den moduan, kultur arloak arte plastikoko ikastaroa antolatu zuen Patxi Huarteren eskutik. «Eguberrietan plastikatzen» tailerrean bete ziren 5-12 urte bitartekoei eskainitako 30 plaza.

Aipatutakoaz gain, nabarmentzekoak dira honako jarduerak hauek: herriko haurrek Maridomingiri eskutitza emateko aukera izan zuten; Jaiotzagileen Elkarteak egindako eta herrian barna jarritako jaiotzak bisitatzeko aukera izan genuen, Bilaketako Abesbatza eta Instrumentu Taldearen laguntzarekin; Olentzero etorri zen; Ekialdeko Errege Magoen mezulariak harreara egin zuen; eta opariz beteta etorri zen Errege Magoen kabalkadaz disfrutatu genuen.

Abenduan zehar ikusgai egon ziren Agoitz Hiria XII. Argazki Lehiaketara aurkeztutako lanak.

Bukatzeo, Mar del Rey-ren «Las gallinas de Maitina» liburua aurkeztu zen liburutegian, eta jende asko hurbildu zen ekitaldira.

Aktibitatez betetako hilabetea, kulturaz disfrutatu eta aberasteko.

URTARRILA. Hilabete honetan zehar bi erakusketa izan ditugu Kultur Etxean. Alde batetik, «Matices en la línea de tiempo» izeneko egon da, zeinak zeramika izan duen erakusketa kolektibo horren ardatza. Nafarroako zeramika egile ospetsuen lanak elkarrekin bertan: Concha Cilveti eta Estrella Los Arcos-enak hain zu-



zen ere. Lan horien ondoan gure herriko hauen lanak: Mari Urretarazu, Socorro Erdozain, Aitziber Martxueta, Teresa Beortegui, María Jesús Laurenz eta Alodia Lusarreta eta haren ikasleak (plastikan tailerreko ikasleak).

Horretaz gain, Kultur Etxeko sarreran ikusgai jarri ziren San Migel Ikastetxeko ikasleek Eguberrietarako egindako postalak. Ekimena Guraso Elkarteak sustaturikoa zen.

«The Primitives» ikuskizunak, Primita Brothers eta Producciones Yllana-renak, inoiz ez bezala disfrutatu zigen. Kalitate handiko komedia musikal horrek eszenaratze modernoa eta probokatzailerekin esperientzia ezin hobea eman zigen, zuzenean bizitzeko. Urtarrilean zehar bi liburua aurkeztu dira: «Memorias de Lacalle», Joxe Lacalle kazetari grafikoaren ibilbidea egiten digu, argazkien bidez, Egin egunkarian lanean egon zen bitartean. Irudi harrigarriak: Nafarroan egindako mobilizazio sozial eta sindikalenak, liburua betetzeko.

Horretaz gain, Bilaketak Javier Álvarez Caperochipiren «Jiméno Egúvide (Aoz, 1856-Pamplona, 1937), médico prestigioso de la vieja Pamplona» liburua aurkeztu zuen. Manuel Jimeno Egúvide agoiztarren bizitza erreparatzen du. Jimeno XIX. Mendearen bukaeran eman zen "osasun iraultzaren" Nafarroako bultzatzailea izan zen.

OTSAILA. Inauteriak izan dira otsaileko protagonista nagusiak. Inaute egunetako larunbata goizean, bizilagun talde eder bat txistulariekin lagundurik Agoizko kaleetan barrena ibili zen arrautzak eta txistorra eskatzen. Arratsalde hasieran, Merkatuaren plazan txokolate jana goxoa egon zen eta ondoren, "Maskarita eta Kas-kabobo kalea" ireki egin zen ohitura den moduan. Asteartean, bizilagun asko ikusgarri jantzi ziren kalejira egiteko, ostean, herritar guztiek txistorra-tortilla pintxoak dastatu ahal izan zituzten.

Gurekin urtero dugun beste ohitura bat Santa Agata eguneko kalejira da. Egun horretan, haurrak baserriarrez jantzita, eta faroltxo eta makilak eskuan dutela kantari ibiltzen dira herriko kaleetan. Elena Dufurrek egindako "Nostalgia de paisaje" akuarela lanaren erakusketa Kultur Etxeko areto nagusian erakusgai egon da, natura eta bere paisaiak kolorez eta argiz beterik, eta emozioz beteriko aberastasuna erakutsi digu.

José María Asín bakarlariak komedia dibertigarri bat antzeztu zuen, "Misterio Bufo", Dario Foren ikuskizun gorena. Ikuskizunak hiru istorio biltzen ditu giro komikoan kontatuak.

Otsaileko hilabetearekin amaitzeko, Víctor Manuel Egia historialari jaunak hitzaldi interesgarri bat eskaini zuen Iratiko trenarekin zer ikusia zuena. Zehaztasun handiz eta baliabide grafikoak lagunduta "Un viaje en el ferrocarril del Irati a través de la fotografía" azaldu zuen.

## KANPONDOA, S.L.

KANPONDOA S.L., KUDEATZAILEAREN BILA. Pasa den urtarrilaren 15ean bukatu zen Kanpondoa S.L. Agoizko Udaleko elkarte publikoaren kudeatzaile lanposturako eskaintzak aurkezteko epea. Agoizko Udalak osoko bilkuraren aho batez onetsi zuen deialdia, hautapen proben bidez egitekoa. Lanpostua hutsik gelditu da Jorge Vaquero elkartearen zuzendaritzan bost urtetan zehar aritu eta joan ondolan.

Hautatuko den pertsonak orain arte egondako kudeatzailek zituen funtzio berberak izanen ditu. Deialdia arautzen duen baldintza ple-guak zehazten ditu funtzio horiek, hala nola deialdian parte hartu nahi dutenen baldintzak.

Onartutako izangaiak proba praktikoa egin beharko dute, Kanpondoa Elkarteko planifikazio eta kudeaketaren ingurukoa, eta on-

doren, Epaimahaiaren aurrean defendatu beharko dute. Curriculuma eta ibilbide pertsonala aztertuko da eta proba psikotekniko errazak egingen dira, pertsona hautatzeko.

Agoizko Udalak eskerrak eman nahi dizkio Jorge Vaquerori, urte hauetan zehar Kanpondoaren zuzendaritzan adierazi duen profesionaltasunagatik eta eskaintako dedikazioagatik.

HITZARMEN BERRIA. Kanpondoako langileentzako hitzarmena urtarrilean sinatu zen, hilabeteetan bilerak eta negoziazioak egin eta gero kirol elkarterako bigarren hitzarmena sinatzea lortu zen. Lan-hitzarmena bi urterako da. Kontuan harturik kudeaketa publikoa izan aurretik indarrean zegoen arloko beste lan-hitzarmena, orain sinatu den hitzarmen berriarekin langileen lan baldintzak hobetu dira. Nahiz eta bertako egoera ekonomikoa delikatu den.

## TITULARRAREN ALDAKETA, TOKI EDER PILOTALEKUKO TABERNAREN GESTIOAN

Pasa den urtarrilaren 8tik aurrera, Oscar Pérez Agoizkoa da Toki Eder pilotalekuko kudeatzaile berria. Dani Pérez orain arteko jabeak kontratua utzi dio; beraz, arduradun berriak 2015.eko apiril-ean hasi zen jatorrizko kontratuarekin jarraituko du, horrek zituen baldintza berberekin eta elkarren artean adostuta.

Kontratua uzteko aukera aurikusita dago Nafarroako kontratuen legean, hala nola tabernaren kudeaketa eramateko bere garaian udalak onetsitako baldintzen pleguan; beti ere, jabe berriak onetsi beharko ditu aurrekoak zituen baldintza berberak.

Zorte on Oscar Pérezi abentura berri honetan!

## JOSÉ ANTONIO VERGARARI OMENALDIA

Joan den otsailaren 10ean Agoizko Kirol Elkarteak José Antonio Vergarari ongi irabazitako omenaldi polit bat eskaini zion. Urteetan emandako laguntza eta egindako lan guztia goraipatu nahi izan zen eta eguraldiak lagundu ez arren, Jose Antoniok Agoizko Kirol Elkarte guztiaren, oraingo eta beste garaietako jokalarien, bere familiaren eta zaleen berotasuna jaso zuen.



## SAN SILVESTRE HOTZA ETA ANIMATUA

Urteetan bezala, lasterketaren jarraitzaileak urteari agurra emateko elkartu ziren. Arratsaldea hotza zen, seieta hasi zen lasterketa eta berrogeita hamar pertsona inguruk, haietatik gehienak gaztetxoak, herritik buelta bat korrika ematera irten ziren. Ohitura bihurtu den moduan, jai-giroa zegoen eta partaide askok moztuz jantzita eta

txilibatua joaz ibili ziren. Haurrentzako itzulia Kale Nagusitik, Landakoatik eta Irigai auzotik pasa zen. Ondoren, txikiek berain bizikleta lagun zutela San Migueletik eta Kanpondoatik itzulia egin zuten. Azkenean, denak elkarrekin argazki bat egin zuten eta kirolaz eta osasunaz beteriko urte berriaren alde topa egin zuten.

## ESTHER LEÓN ITOIZ ZENDU DA, NAFSE-36 SORTU ZUEN ANDREA

Duela gutxi, Esther León Itoiz zendu zen Iruñean, Aurelio León Indaren alaba zen. Aurelio León Inda Agoizko alkatea izan zen, Izquierda Republikanako politikaria zen eta 1936ko irailaren 19an erail zuten Eloko teilerian, faxisten estatu kolpean. Esther Leonek 86 urte zituen, burua eta oroitzapenak argi-argiak eta adeitsua zen oso, horrela, azken egunetan ere senide eta lagun maiteak agurtu zituen.



Esther Jorge Cortés Izalekin ezkondu zen, senarra euskaltzalea zen eta Nafarroako ikastoletako sortzailea izan zen. Senar-emazteak hiru semeeren gurasoak ziren, Jorge, Javier eta Imanol. Esther Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko

sustatzaileetako bat izan zen eta bere aitak pairatutako atxiloketa, eta heriotzaren testigantza zabaldu zuen. Bere bizi pena Gorka Moreno kazetariak jasota utzi zuen "Unidos por la verdad" liburuan, 1936an gertatutako altxamendu faxistagatik bizitako beste testigantza latzekin batera. Beste hogeita lau pertsonekin batera "Agoitz, iragana gogoan" liburu-DVDaren osaketan parte hartu zuen; lan horrek, herrian azken ehun urteetan gertatutakoak jasotzen ditu.

Agoizko alkatea izandakoaren bigarren alaba zen Esther; alaba zaharrena Andrea zen, eta 2017 urteko otsailaren 6an zendu zen. Goian bego.